

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Lanpostu zerrendaren aldaketa onestea

Udal honek, 2025eko irailaren 25ean egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen lanpostuen zerrenda aldaketa onestea eta, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.3 artikuluekin bat etorritik, onetsitako aldaketa argitaratzea, honako lanpostu hauei dagokienez:

Idazkari lanpostua hirugarren mailakoa beharrean bigarren mailakoa sailkatzea, eta kontuhartzaile, diruzain, arkitekto, lurraldeko koordinatzaile eta ingurumeneko teknikari lanpostuak sortzea:

- Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea; kopurua: 1. Betetzeko era: merezimendu lehiaketa. Eskala: estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa. Azpieskala: idazkaria. Klasea: bigarrena. Taldea: A1 DO: 30. BO: 21.800,00 euro. Arduraldia: ehuneko ehun. Hizkuntza-eskakizuna: 4, irakurmena eta idazmena: C2; eta entzumena eta mintzamina: C2. Derrigortasun data: udalbatzak erabakia onetsi zueneko. Bestelako betekizunak: B gidabaimena.

- Lanpostuaren izena: kontuhartzailea; kopurua: 1. Betetzeko era: merezimendu lehiaketa. Eskala: estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa. Azpieskala: kontuhartzaile-taldea-diruzaintza. Klasea: bigarrena. Taldea: A1 DO: 28. BO: 21.800,00 euro. Arduraldia: ehuneko ehun. Hizkuntza eskakizuna: 4, irakurmena eta idazmena: C2, eta entzumena eta mintzamina: C2. Derrigortasun data: udalbatzak erabakia onetsi zueneko. Bestelako betekizunak: B gidabaimena.

- Lanpostuaren izena: diruzaina; kopurua: 1. Betetzeko era: merezimendu lehiaketa. Eskala: estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa. Azpieskala: kontuhartzaile-taldea-diruzaintza. Klasea: bigarrena. Taldea: A1 DO: 27. BO: 18.530,00 euro. Arduraldia: ehuneko ehun. Hizkuntza eskakizuna: 4, irakurmena eta idazmena: C2, eta entzumena eta mintzamina: C2. Derrigortasun data: udalbatzak erabakia onetsi zueneko. Bestelako betekizunak: B gidabaimena.

- Lanpostuaren izena: lurraldeko arkitekto koordinatzailea; kopurua: 1. Betetzeko sistema: lehiaketa. Eskala: Administrazio Berezia Azpieskala: teknikariak. Taldea: A1 DO: 27. BO: 18.530,00 euro. Titulazioa: arkitekturako gradua edo baliokidea. Destinoa: Aguraingo udaletxea. Arduraldia: ehuneko ehun. Hizkuntza eskakizuna: 3, irakurmena eta idazmena: C1, eta entzumena eta mintzamina: C1. Derrigortasun data: udalbatzak erabakia onetsi zueneko. Bestelako betekizunak: B motako gidabaimena edukitzea. Hautaketa-sistema: oposizio-lehiaketa.

- Lanpostuaren izena: ingurumeneko teknikaria; kopurua: 1. Betetzeko sistema: lehiaketa. Eskala: Administrazio Berezia Azpieskala: teknikariak. Klasea: erdi mailakoak. Taldea: A2 DO: 23. BO: 14.715,00 euro. Titulazioa: ingurumenarekin lotutako arlo zientifiko-teknikoetako goi mailako unibertsitate titulua. Destinoa: Aguraingo udaletxea. Arduraldia: ehuneko ehun. Hizkuntza eskakizuna: 3, irakurmena eta idazmena: C1, eta entzumena eta mintzamina: C1. Derrigortasun data: udalbatzak erabakia onetsi zueneko. Bestelako betekizunak: B motako gidabaimena edukitzea. Hautaketa-sistema: oposizio-lehiaketa.

7/1985 Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera, erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka errekurtsio hauek jarri ahal izango dira:

– Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, aurkaratutako egintza eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin.

– Administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo berraztertze errekurtsioaren esanbidezko ebazpenetik, errekurtsio hori jarri bada. Aukerako berraztertze errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean esanbidezko ebazpenik jakinaraziko ez balitz, ezetsizat jo beharko da, eta administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da sei hilabeteko epean, presuntziosko egintza gauzatzen den egunaren hurrengotik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikulua). Aukerako berraztertze errekurtsioa jartzen bada, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsioa esanbidez ebatzi arte edo presuntziosko ezespina gertatu arte, hura jarri eta hilabete batera.

– Bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsio (39/2015 Legearen 40.2 artikulua).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2025eko irailaren 29a

*Alkatea*

**RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR**